

GRADU AMAIERAKO LANA

“*KARRIKAN* JARDUERA FISIKO AUTOGESTIONATURANTZ”



EGILEA: IMANOL KAÑAMARES MUGERZA

ZUZENDARIA: OIDUI USABIAGA ARRUABARRENA

JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN ZIENTZIETAKO GRADUA

2017/2018 IKASTURTEA

AURKIBIDEA

| | | |
|------|---|----|
| 0. | BLOKEA: Sarrera | 2 |
| 0.1. | Sarrera eta justifikazioa | 2 |
| 0.2. | Helburua | 3 |
| 0.3. | Metodologia | 3 |
| 1. | BLOKEA: Esperientzia ezberdinak | 5 |
| 1.1. | Sarrera..... | 5 |
| 1.2. | Kultura fisikoaren ulerkera ezberdinak historian zehar | 5 |
| 1.3. | SESBren planteamenduak, mugimendu iraultzaileen kirol praxi gisa...11 | |
| 1.4. | Irakaspenak eta ondorio praktikoak | 16 |
| 2. | BLOKEA: Kirola formazio sozial kapitalistan..... | 18 |
| 2.1. | Sarrera..... | 18 |
| 2.2. | Bereizketa terminologikoa..... | 18 |
| 2.3. | Kapitalismoa eta kirola estatuaren ideologi aparatua gisa..... | 21 |
| 2.4. | Kirolaren funtzio ideologikoak | 23 |
| 3. | BLOKEA: <i>Karrikan</i> | 24 |
| 3.1. | Proiektu estrategikoa eta enbrioi izaera..... | 24 |
| 3.2. | Aisia vs lana kontraesanaren gaindipena | 25 |
| 3.3. | Jarduera motorraren potentziala..... | 25 |
| 3.4. | Kontzientziaren garapena eta pertsona berriaren eraikuntza | 26 |
| 3.5. | Osasunaren ulerkera..... | 28 |
| 3.6. | Genero auzia..... | 29 |
| 3.7. | Eta lehiarekin zer?..... | 30 |
| 3.8. | Autogestioa..... | 32 |
| 3.9. | Ludikotasuna | 34 |
| 4. | BLOKEA: | 37 |
| 4.1. | Filosofiaren isla praktikoa gaur egun | 37 |
| 4.2. | Aurrera begirako erronkak | 40 |
| 4.3. | Ondorioak | 41 |
| | ERANSKINAK | 42 |
| | BIBLIOGRAFIA:..... | 43 |

0. BLOKEA: Sarrera

0.1. Sarrera eta justifikazioa

Lan honen helburua “*KARRIKAN*, Jarduera fisiko autogestionaturantz” proiektuaren azalpena egitea da. Ikasle Mugimenduak Euskal Herri osoan martxan jarri duen Eskola Kolektiboen proiektuaren barruan kokatzen dugu lan hau. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Graduko ikasleek osatutako talde kritikoaren lana da da hain zuzen, esku artean duzuna.

2016. Urtetik aurrera fakultateko hainbat ikaslek talde kritikoaren baitan emandako eztabaidek “Jarduera Fisiko eta Kirolen hausnarketa” txostena izan zuten ondorio gisa, eta orain bi urte geroago, hausnarketa teoriko horiek praktikara eramateko unea iritsi da. Lan honen helburua beraz, hausnarketa horietatik abiatu eta ikasle zein herri mugimenduari jarduera fisikoa praktikatu ahal izateko tresna praktikoak ematea izango da helburua.

Lan honetan taldearen hausnarketak ahalik eta hoberen azaltzen saiatuko naiz, jakinda, hainbat korapilo oraindik ez ditugula askatu eta tesi batzuk ez ditugula eztabaidatu. Taldeak irekitako bidean nire aletxoa jartzea da helburua beraz, datozen urteetan sakondu beharreko gaiak identifikatu eta proiektu osoari ikuskera estrategiko zuzena txertatzeko bidean.

Bide horretan hainbat galdera topatu ditugu, eta lan honen bidez horien erantzunak ematen saiatuko gara. Erabil liteke kirola gizartea aldatzeko tresna gisa? Zein paper jokutzen du jarduera fisikoak pertsonen garapenean? Zeintzuk dira gaur egun eskaini beharko genituzkeen praktika motorrak?

Lan honetarako proposatu dugun abiapuntua honakoa da: Kirola bakarra da, gaur egun ezagutzen dugun bezalakoa. Harreman sozial kapitalisten markoaren baitan kirola erreformatu edo abolitu egin daitekeela pentsatzea, eboluzio historiko oso bat kontuan ez hartzea litzateke, inpultso ludikoen aurka eman den jazarpen eta errepresioari muzin egin eta hauek betirako emango direla planteatzea alegia. Kirolaren

gainditzea hortaz, harremantze eredu berri baten baitan kokatzen dugu edo ezin dugu kokatu. Hau esanda, ez dugu ukatuko gaur egungo kirolaren hainbat elementu ezin daitezkeenik erabili, txapelketaren eta errendimenduaren fetitxismotik at dagoen kultura fisiko ludiko emantzipatzaile baten baitan eraginkorrak izan baitaitezke.

0.2. Helburua

Helburua beraz kultura fisikoaren teoria marxista bat garatzea litzateke, eta berau martxan jartzeko bideorri taktiko bat garatzen saiatzea. Lanak hiru bloke nagusi izango ditu.

Lehengo blokean ,kultura fisikoaren arloan eman diren esperientzia historikoen errebaso bat egingo da, eta horietatik hainbat irakaspen konkretu ateratzen saiatu, langile kirola deituriko mugimenduaren kritika eginez, besteak beste. Horretarako, jarduera fisikoa, kultura fisikoa, kirola eta langile kirola bezalako terminoen analisia egingo dugu. Bigarrenean, kirolak formazio sozial kapitalistan nola funtzionatzen duen aztertuko da, bilakaera ulertu eta egun jokatzen duen papera analizatu. Hirugarren blokean “*KARRIKAN*, Jarduera fisiko autogestionaturantz” proiektuaren gako garrantzitsuenak laburbilduko dira, jarduera fisiko paradigma berri baten enbrioi gisa.

0.3. Metodologia

Sarreran aipatu bezala lan hau talde kritiko baten hausnarketan ondorio da. Bi urte baino gehiagoko prozesu batean murgilduta, aurtengoan praktikara salto egiteko hautua egin genuen, eta praktika horri dagokion marko teoriko proposamena da honako hau. Parte hartzaileak Jarduera Fisikoen eta Kirolen Zientzien graduako Talde Kritikoko kideak gara, maila guztietako 15 ikasle inguru. Urte osoan zehar asterokotasunez elkartzen gara, eta hiru ildo nagusi ditugula esan daiteke: Formazio teorikoa, ekoizpen teorikoa eta ildo praktikoa. Gure ildo praktikoa *Karrikan* proiektua bera da, 2017/2018 ikasturte hasieratik martxan jarri duguna. Ekoizpen teorikoari dagokionez, duela urte t’erdi txosten bat publiko egin genuen (eranskinetan ikusgai) Eta horretaz gain hainbat iritzi artikulu ere atera ditugu, kirol arloko hainbat gertakariren kritika eginez.

Lan honetan aurten eman ditugun eztabaida guztien sintesi bat egitea izan da helburua, eta denbora faltagatik landu ez diren hainbat gai ere landu dira, datorren urterako sakondu beharreko gai gisa identifikatu direlarik. Horrela bada, talde baten ideiak sintetizatu eta kolektibo horri ekarpena egin nahi dion lana da honako hau.

Metodologiari dagokionez urte hasieran bloke nagusiak banatu genituen, eta urtean zehar horien inguruko lanketa ezberdinak egiten joan gara. Blokeak denen artean adostu ziren, eta garatzeko gai ginen gaiak gure kontu hartzeaz aparte, kanpoko ponenteen beharra zuten gaiak ere identifikatu genituen. Horri erantzunez, osasunaren inguruko formakuntza bat egiteko Medikuntzako Asanbladako ikasle baten laguntzaz saio teorikoa eta eztabaida burutu genituen. Gainontzean gure kabuz lantzen joan gara, iturriak identifikatu eta berauek landuz.

Datak finkatuta eta landu beharreko testuak zehaztuta, aldez aurretik asanbladan erabakitako dinamizatzaileak testuaren sintesia egin, eta gero eztabaida formatua egin dugu. Denek testua irakurria eraman dute finkatutako egunerako eta ondoren dinamizatzaileak galdera ezberdinak prestatu ditu eztabaida arindu eta ondorio garbiak sintetizatzeke. Ondorioz, lan honetan barnebildu diren tesietako asko lan talde honen hausnarketen ondorio izan dira, eta beste asko zuzenean propioki honetarako landuak artikulua, liburu zein txostenen bidez.

1. BLOKEA: Esperientzia ezberdinak

1.1. Sarrera

Jarduera fisikoak eta jolas ezberdinak gizartearen historia osoan zehar presente egon dira, baina merkantziaren logikaren zabalpen eta inposizioak jarduera ludiko hauen kontrako eraso zuzena suposatu du. Praktika horietako asko desagertu egin dira, eta beste askok semi-klandestinitate egoera batean biziraun dute. Dena dela, bizitzaren dimentsio ludikoa, komunitateen biziraupenean oinarritzko faktore izan dena, eraldatua eta suntsitua izan da prozesu honen ondorioz (Corriente & Montero, 2012).

Gure laneko ibigarren blokean azalduko dugun bezala, garapen konkretu baten ondorio da kirola, baina jarduera fisikoaren paradigmen inguruko eztabaida askoz atzeragotik datorren afera da, munduko pentsalari esanguratsuenetako askok jorratu dutena. Jarduera fisikoa pertsonaren garapenerako tresna garrantzitsua dela aspaldi ohartu zen gizakia, baina ikuskera oso ezberdinak egon dira, askotan muturreko ondorioak ekarri dituztenak. Atal honetan errepasso historiko bat egingo dugu, bilakaera zein den aztertu eta ondorioak ateratzen saiatzeko.

Lehenengo manifestazio atletikoak zibilizazioaren agerpenaren eta asentamendu handien aurretik ematen diren arren, eta beraien arrastoa Mesopotamia, Egipto eta Cretan jarraitu daitekeen arren, Grezia klasikoa da garapen atletikoaren indargune handiena suposatu zuen garaia. Beraz hortik abiatuko dugu errepassoa (Corriente & Montero, 2012).

1.2. Kultura fisikoaren ulerkera ezberdinak historian zehar

1.2.1. Grezia klasikoa

Olinpiar jokoen hasiera, K.A 776. urtean greziar egutegiaren oinarria izan zen, hortik aurrera olinpiadetan zenbatu zena. Joko hauek, jainkoen gurtza egiteko eta hauek omentzeko eta gudan eroritako gudariak omentzeko baliatzen ziren, beste gauza batzuen artean. Garai honetan kirol praktika guztiz gerrara bideratua zegoen, eta horretarako entrenamendu gisa ulertzen zen.

K.a VI. mende bukaeratik aurrera, demokratizazio eta eraldaketa politiko garaia bizi izan zen Grezian eta heziketa fisikoak hezkuntzan izan beharreko paperaren inguruan lehen eztabaidak izan ziren. Gaztetxoek, ezer baino lehen, igeri egiten eta irakurtzen ikasi behar zutela, pobreek nekazaritza edo industriako lanak egiten ikasi behar zutela, aberatsek musika, ekitazioa, gimnasia, ehiza eta filosofia landu behar zituztela esaten zen (Corriente & Montero, 2012).

Espartanoen garaian zegoen entrenamendu militarren ideia pixkanaka aldatzen joan zen eta helburu higieniko eta medikalak lehenesten hasi ziren. Onura fisikoez gain onura espiritualak atxikitzen zitzaizkion jarduera fisikoari. Gorputz armonikoaren garapenak edertasun fisikoa zein espirituala zekarren ustea zuten. Edertasun fisikoa beraz errespetua lortu eta posizio pribilegiatuak eskuratzeko bide gisa ulertzen zen. Aipatzekoa hezkuntza atletiko hau hiritar guztientzako bermatua zegoela. Hiritarrak, eskubideak zituzten pertsonak, ez ziren emakumeak, esklabuak zein beste asko kontsideratuak izan.

Aurrerago *sofistek* jarduera fisikoa ez praktikatzearen kontrako tesiak planteatu zituzten, arrazoiaren lanketa lehenetsiz. Ka IV. mendean balio olinpiarren lehen krisi zantzuak agertu ziren eta lehiaren ikuskeraren inguruko eztabaida garrantzitsuak mahai gaineratu. Olinpiadak profesionalizatzen hasi ziren eta atleta batzuk sari batzuen truke lehiatzen hasi ziren, honek korronte askoren partetik kritikak ekarri zituelarik. Aurretik zuen izaera galtzen hasi ziren hainbat praktika, eta horrek korronte filosofikoen arteko eztabaidak ekarri zituen lehiaren inguruan, gaur arte ematen jarraitu direnak (Corriente & Montero, 2012).

1.2.2. Erroma:

Greziarren kasuan bezala, Erroman ere konpetizioen jatorriak izaera sakratua izan zuen. Erromatarren artean ostera, praktika hauek laister profesionalizatzen hasi ziren eta ikuskizunaren bidea hartu. Eraginkortasun militarren ikuspegitik aztertzen zuten jarduera fisikoa. Militar onak formatzea zen helburua, edertasun fisikoari edota espirituaren lanketari inolako garrantzirik eman gabe. Kultura fisikoa, hezkuntza eta garapen integralaren ideal greziarra bezala, bigarren maila batean geratu ziren beraz. Greziar hiritarra, mende batzuez behintzat, jokoetan parte hartzailea izan zen, eta loriagatik parte hartzen zuen. Erroman ordea, hiritarra ikusle huts bilakatu zen eta

profesionalizatutako pertsonak, edo esklabuak ziren parte hartzen zutenak. Horrela beraz, Grezia olinpismoaren sehaska izan bazen, Erroma ikuskizunaren sehaska izan zela baieztatu daiteke (Corriente & Montero, 2012).

Greziar eragina Ka. I. mendean iritsi zen eta ondorioz hainbat mendez olinpiar ospatu ziren Erroman ere. Baina izaera erlijioso hori pixkanaka galtzen joan zen, kutsu hedonista errotu eta sekularizazioa sakonki emanaz, *panem et circenses* filosofian laburtzen dena. Trantsizio horretan, ikuskizuna zilegiztatze politikorako tresna gisa ulertzen hasi ziren, eta historian lehen aldiz, ekintza atletikoen erabilpen espreski politikoa eman zela esan daiteke (Corriente & Montero, 2012).

Ikuskizun hauen maiztasuna erritmo bizian handituz joan zen, festa egunak lan egunak baina gehiago izateraino garai konkretu batzuetan. Kuadrige lasterketak, *munerak* (gladiadore eta animalien arteko borrokak), eta *munera sine missione* ak burutzen ziren, borroka kolektiboak.

1.2.3. Monarkia absolutuak

XVII. mendean zehar monarkia absolutuen zabalpenarekin, hizkera, jokabide eta bizi ohituretan aldaketa nabarmenak ematen hasi ziren. Nobleziaren estatutueta transformazio agerikoak eman ziren, bai hezkuntzan zein aisialdian, eta ondorioz kultura fisikoan ere. "Hiru arteak" irakatsiko ziren bertan, zaldiketa, ezpataren erabilera eta dantza. Hiru diziplina hauek gainera arautze eta birmoldatze prozesu sakona pairatu zuten garai honetan. Poseak eta estiloaren lanketak berebiziko pisua hartu zuten, eta eskaera fisiko handia duten praktikak errefusatzeko tendentzia agertu.

1.2.4. XVIII. Mendetik aurrera

Burgesia botere ekonomiko eta politikoaren jabe egiten hasten den garai honetan, aldaketa sozial eta politiko handiak eman ziren. Honek, kapitalismoaren zabalpenaren hastapenak ekarri zituen eta horrek isla izan zuen jarduera fisikoaren ikuskeran. Jarduera fisikoa ikuspuntu utilitarista eta produktibista batetik aztertzen hasten da, gainbalioaren logikaren eskutik (Corriente & Montero, 2012).

Giza gorputza, objektu neurgarri, kontrolagarri eta kalkulagarri bihurtzen da, eta errendimendu potentzial infinitu bat jartzen da erdigunean:

“Un dócil cuerpo que puede ser sometido, utilizado, transformado y perfeccionado” (Faucault 2005:40).

Gorputzaren zaintza eta itxurari, hierarkia sozialeko oinarritzko elementu gisa, XVI. mendean ematen zaion garrantzia alde batera uzten hasten zaio. Munduaren ikuspegi zientifikoa erresistentzia eta errendimendu terminoetan aztertzen da, gaitasun fisikoekin efizientzia eta produktibitatea oinarri izanik (Corriente & Montero, 2012).

Jarduera fisikoan aldaketa ezberdinak eman ziren eta jarduera fisikoak kirol bihurtzearen aurrekari izan ziren. Locke (1693) izan zen ikuskera utilitarista hau planteatu zuenetako bat:

Jarduera fisikoa hezkuntzaren oinarria izan behar da, gorputza indartu eta nekea eta bizitzaren gorabeherak jasateko gai bihurtzeko tresna izango da, hots, gizakia lan indar merkantzia gisa birproduzitzeko tresna gisa prestatu behar da (Corriente & Montero, 2012).

Kantek ere antzeko tesiak landu zituen, haurren pedagogiari dagokionez, lehentasuna hauen indartzean eta lanerako prestatzekuntzan jarriz. Jolasak inpulso natural gisa ikusten zituen eta hauek neurtu eta kontrolatu egin behar zirela uste zuen. Bere aburuz, umeei lan egiten ikastea oso garrantzitsua da, erokeria pedagogiko bat da umeei jolasten ikastea (Corriente & Montero, 2012).

Kirolak, gaur egun ezagutzen dugun moduan, Ingalaterran du jatorria. XVIII eta XIX. mendeetan bertako aristokraziak eta *gentry*ak Erdi Aroan ematen ziren jolas eta denbora pasa herrikoiak etxekotu eta berauek eraldatuzetik sortzen da gaur egungo kirola. Garai honetan, Jolas eta joko tradizionalen” *jatorrizko espropiazioa* ” eman zela ondoriozta daiteke, garaiko klase agintarien partez (Corriente & Montero, 2012).

Industrializazio garaian, langileria hirietan pilatzen hasten da eta transformazio sozial handiko garaiak bizi dira. Kapitalismoa errotzeko neurriak oso bortitzak dira, eta lan indarra behar da fabriketan, prozesu industrial guztia martxan jartzeko. Lanik topatzen ez dutenen aurkako jazarpena oso bortitza da, eta indarrez bizi modu berri bat inposatzeko estatuaren esku hartzea zuzena da (Engels, 1979). Garai honetan, hedonismoa, lanaren kontrako jarrera eta alferkeriaren kontrako legeak ezarri ziren,

eta honek ondorio zuzenak izan zituen bai garaiko ehun sozial ingelesean baita kirolean ere.

Bizitza merkantziaren logikaren baitan antolatzen hasten da, gainbalioa bihurtzen delarik harreman guztiak determinatuko dituen oinarrizko kategoria. Balore hauen domestikazioa jarduera fisiko eta kirol praktiketan islatuko da. *Puritanisten* kanpainak esaterako oso garrantzitsuak izan ziren, aisialdi ohitura eta festa ezberdinek kontrako borrokan (Corriente & Montero, 2012).

Inflexio puntu garrantzitsua ordea, estatu parlamentarioaren eratze eta egonkortzeak ekarri zuen, kirol modernoaren jaiotze eta garapenari dagokionez. Eliasen (2011) aburuz, paralelismo bat ematen da Ingalaterrako klase agintarien parlamentarizazioaren eta hauen denbora pasen, kiroltze prozesuaren artean. Klase agintariko atal ezberdinen arteko paktu honek helburu amankomun baten alde lan egiteko aukera eskaini zien: kapitalismoa egonkortzea. Bide horretan ordea, bi erronka nagusi zituzten.

Batetik, langile eta artisauak automata obediente eta sumiso bihurtu behar ziren, erloju baten erritmo produktibora egokitu eta haientzat zentzu gabeko praktika bat burutzeko. Lan abstraktua eta lan indarra saltzeko prestatu behar zituzten. Bestetik, orain arte izandako denbora pasa eta ohiturak erreprimitu eta suntsitu behar ziren, "pobreen" jai eta jokabideak kontsideratzen ziren, jardun ekonomikoa oztopatzen zutelako eta produktiboak ez ziren egoera animikoak sortzen zituztelako (Corriente & Montero, 2012).

Garai honetan hortaz, aisialdi herrikoiaeren erreformak berebiziko garrantzia hartu zuen, XVIII. mende amaiera eta XIX. mende hasieran, jolas tradizionalak lehenbizi domestikatuak eta gero beste praktika sedentarioago batzuegatik ordezkatuak izan ziren, kapitalistentzako hain "kontraeraginkorrak" ez zirenak. Aisialdiko ohitura herrikoia hauen "jatorrizko espropiazioaren" prozesu honen aurretik, nekazari eta langileak haien ingurune sozialetik bortizki kanporatuak izan ziren. Horretarako, biolentzia egiturazko tresna izan zen estatuaren partetik (Corriente & Montero, 2012).

Denbora pasa eta aisialdiaren kontrako mugimendu horren adibide bezala *metodistak* har ditzakegu, beste askoren artean. XVIII. eta XIX. mendeetan zehar eliza metodistak kanpaina garrantzitsu bat martxan jarri zuen *pub* en, apustuen, kaleko jolasen eta beste hainbat praktiken aurka. 1787 an Errege Dekretu bat onartzea lortu zuten, “bizioaren” jarraipen eta errepresioa helburu zuena. Horrekin batera, diziplina eta ordena ezartzeko lan handia egin zen fabriketatik hasi, eskoletatik pasa eta eliza eta bizitzako esfera guztietara. Aisialdiko mugimendu oro beraz, bortizki erreprimitua izan zen, juridikoki eta polizialki, tabernak izan ezik:

Tabernak dira poliziak errespetatzen dituen aisialdiko esparru bakarrak (Corriente & Montero, 2012).

Honen aurrean estatuak egiten zuen aisialdi eskaintza “aisialdi arrazionalaren” filosofiaren baitan barnebidu daiteke. Honek oinarrian kirol ikuskizun aisialdia du, eta sortze bidean den langile klase batekin batera hazten doa. Burgesia, pixkanaka hazten eta indartzen doana, daukan indar guztia erabiltzen hasten da herri ohitura eta jaiak arautu eta bere mesedetan jartzeko, hots, gainbalioaren erauzketaren logika arrazionalaren baitan kokatu eta ahalik eta gehien lan orduak luzatzeko. Honekin batera, kalearen, orain arte harremantzeko espazio garrantzitsuena izan denaren, jabe egingo da. Kalea, denbora pasa eta jolas ezberdinak burutzen ziren espazio izatetik, “espazio publiko” hutsal eta edukirik gabea izatera pasatzen da, toki batetik bestera joateko igaro beharreko bide soil eta merkantziak garraiatzeko espazio bihurtuz. Horretarako, neurri errepresiboak erabili ziren, kaleko postuen debekutik hasi, bilkura politikoak debekatzetik pasa eta 1834ko Pobrearen Legearen ezarpenarekin bukatuz besteak beste. Neurri garrantzitsu bat ere haurren derrigorrezko eskolaratzea izan zen (Corriente & Montero, 2012).

Analisi historikoa egin ostean Sobietar Batasuneko esperientzian sakontzea erabaki dugu. Batetik esperientzia iraultza garrantzitsuenetarikoa izan delako mundu mailan, eta bestetik, bibliografia aldetik ikertuena izan den mugimendua izan delako.

1.3. SESBren planteamenduak, mugimendu iraultzaileen kirol praxi gisa

Sobietar Batasunak, aurreikuspen guztiak hautsiz eta behin proiektuaren gidaritzak balore iraultzaileak albo batera utzita, kirola propaganda tresna gisa erabili zuen, bere kirolariak munduaren aurrean garaile ateratzeko intentziorik, sozialismo-aren indarra lau haizetara zabaltzeko intentziorik. 1952an Helsinkin, sobietar kirolariek lehenbiziko aldiz olinpiar jokoetan parte hartu zuten, eta honek inflexio puntu garrantzitsua suposatu zuen (Corriente & Montero, 2012).

Baina ez da lan honen helburu nagusia kirola tresna gisa nola erabilia izan den aztertzea, kultura fisikoaren gaiari dagokionez eman diren esperientzia ezberdinak aztertzea baizik. Sobietar Batasuna esperientzia iraultzaile oso garrantzitsua izan da eta bertatik irakaspen egokiak atera daitezkeela uste dugu. Gunot-en (2007) esanetan, Bigarren Mundu Gerraren aurretik Sobietar Batasunak ez zuen mugimendu olinpikoan parte hartu, Langile Kirolaren Mugimendu Internazionalaren parte zelako. Hau Kirol Internazional Gorriaren adar garrantzitsua izan zen, 1921ean Moskun sortua izan zena, Komitern-aren barruan. Garai horretan, bi internazional zeuden kirol arloan, Luzernako Kirol Internazionala eta aurretik aipaturiko Kirol Internazional Gorria.

Kirol Internazional Gorria proiektu iraultzailearen parte kontsidera zitekeen, iraultza sozialista eta Sobietar Batasuna aurrera ateratzeko elementu gisa. Luzernako Kirol Internazionalak berriz, proiektu sozialdemokratarekin harreman estua zuen, printzipio erreformistak bere egin eta demokrazia babesten zuen. Biek ala biek, kirol burgesaren eduki eta ideologiaren kritika zorrotza egiten zuten. Kirol burgesa, lehiakortasunaren, errendimenduaren eta indibidualismoaren sustatzaile bezala identifikatzen zuten, gizarte kapitalistaren balioen ispilu nagusi gisa.

Iraultza osteko lehenbiziko urteetan beraz, txapelketa burgesei boikot egin zitzairen, eta langile kirolean zebiltzan herrialde ezberdinek arteko txapelketak antolatu ziren. Kirol burgesaren aurkako posizionamendua agerikoa zen, eta honi antagonikoak zitzaizkion proiektuak jarri ziren martxan, Bartzelonako Herri Olinpiadak izan ziren horren adibide. Etapa ezberdinak bereizten dira kultura fisikoari eta kirol burgesarekiko posizioari dagokionez.

1.3.1. 1920-1924: Osasunera bideraturiko kultura fisikoa

1920ko hamarkada hasieratik eztabaida sakonak eman ziren kultura fisikoaren inguruko ikuspegi ideologikoen eta hari zegozkien antolaketa formen artean. Eliteko kirola garatzearen aldeko tesiak eta kirolaren kontra guztiz jotzen zutenak zeuden aurrez aurre. *Vsevouchak*, formazio aurremilitarrerako antolakundea, eta *Komosomol* ak txapelketa ezberdinak antolatzen hasi ziren, hasiera batean inongo ideologiarik ez zutenak.

Ilido honen aurka bi korrante bereizi ziren, *higienistak* eta *proletkultist* ak . Higienistek eragin nabarmena izan zuten 20 hamarkada hasieran, eta kirola eta sozialismoaren garapena bateraezinak zirela zioten. Kirola osasun fisiko zein mentalerako kaltegarria zela ere defendatzen zuten. Kirol ikuskizunaren aurka ere agertu ziren eta balore indibidualak sustatzen zirela zen kritika nagusia, balore kolektiboak sustatzea erdigunean jarri beharko zen garai batean. (Corriente & Montero, 2012).

Proletkultist ei dagokionez, konpetizioko kirola “gizarte burgesaren aztarna” zela zioten, eta honen desagertzea planteatzen zuten, Sobietar Batasunaren proiektuaren bidez emandako iraultzaren ondorioz. Hainbat langile jolas planteatu zituzten, “inperialisten erreskatea” edota “literatura iraultzailearen kontrabandoa” bezalako izen berritzaileekin. Kooperazio kolektiboa eta masen parte hartzea ziren ardatzak, lehiakortasunaren eta elitismoaren aurka.

Antolaketa ereduari dagozkion eztabaidak ere izan ziren eta Sobietar Batasuneko Partidu komunistak esku hartzea erabaki zuen bere XII. kongresuan ebazpen bat ateraz. Hainbat aldaketen ostean, Kultura Fisikoaren Kontseilu Gorena eratu zen. Kontseilu hau martxan jarri eta berehala, kirolaren inguruko eztabaidan aldaketa nabarmena eman zen, eta kirol lehia tresna gisa erabiltzearen aldeko lehen zantzuak ageri ziren. Kirol praktika, gaur egun kirol moderno gisa ulertzen duguna, jarduera fisikoaren eta gorputzaren zaintzaren barruan ematen diren aldagaien artean beste bat gehiago izan behar zuela aldarrikatzen hasi ziren, “kultura fisikoa” terminoaren barruan barnebiltzen zena. Kirola erabiltzearen aldeko tesiak indartzen hasi ziren (Gounot, 2007)

Kultura fisikoa ez da ariketa fisiko soiletan oinarritzen, gau eta egun irauten duen erregimen higieniko batean baizik, eta bizi baldintza pertsonal eta sozialak barnebiltzen ditu, atsedena, lana, arropa, elikadura eta lana. Honela kultura fisikoaren terminoak Errusian oso esanahi zabal eta anitza hartzen du garai honetan. Langile kirolaren mugimenduak kultura fisikoa edozein jarduera fisikori erreferentzia egiteko erabiltzen zuen bitartean, Kontseilu Gorenak pasibitatea eta erregenerazioa barnebiltzen zituen (Gounot, 2007)

“Kultura fisikoa ez da plusmarkistak sortzen dituen kirol burges bat, ukabil indartsu eta arima ahulekin. Ez gaude kirolaren kontra noski. Are gutxiago, kirola gorputz heziketarako tresna garrantzitsuenetakoa dela uste dugu. Baina osasuna indartzen ez duen kirolaren aurka gaude, pertsona ezgaiak sortzen dituen kirolaren aurka gaude. Pertsonen sentimenduak sustatzen ez dituen kirolaren kontra gaude, pertsonak animalia bihurtzen dituen kirolaren kontra” Nikolaj Semaskok esana, kontseiluko presidentea (Gounot, 2007)

Osasun ikuspuntua lanaren produktibitatearen ikuspuntu batetik aztertzen hasi ziren, eta helburua masen osasuna eta lan gaitasuna mantentzea bihurtu zen pixkanaka.

1.3.2. 1925-1934: Errendimenduko kirolaren garrantziaren gorakada

Garai honetan Mugimendu Olinpikoan kontra kanpaina agerikoa zen eta arrazoiak sendoak ziren kontra egiteko. Osasunera bideraturiko kultura fisikoaren ikuskera, kirol burgesarekiko antagonikoa den ikuskera ideologikoa, eta Kultura Fisikoaren Kontseilu Goreneko kide izatea arrazoi sendoak ziren. Baina posizionamendu hau anibalente bihurtzen hasi zen urte hauetan, hainbat herrialde burgesekin kirol harremanak edukitzeak izan zitzakeen onuren ondorioz.

Garaipenaren aferak oso paper garrantzitsua jokatzen omen du, proletargo osoak, eta baita burgesia osoak ere, langileen herriaren inguruan hitz egiteak esangura handia du. Soilik bi urteko garapena izanda, kirolari errusiarrak kirol burgeseko txapeldunak garaitzeko gai dira eta hori positibotzat eta erabili beharreko potentziala omen da (Gounot, 2007). Kirol garaipenek sobietar iraultzaren apologia mundu mailan egiteko balio behar zuten.

Etapa honetan beraz, osasun ikuspegia errendimendu ikuspegi batekin uztartzen hasi zen, errendimenduko kirola bere tokia egiten hartzen zelarik. Posizio hau argi geratu daiteke Sobietar Batasuneko Partidu Komunistako Komite Zentralak 1925 ean aterako erresoluzioan, non errendimendu altuko atleten elite baten sorkuntza eta sustapena planteatzen zen. Hauek etorkizuneko *estajanovisten* aurrekariak izango ziren. Lanaren estimulazioa eta produktibitatearen apologia egiten zutenak.

1930. Hamarkadan, produktibitatearen aferak garrantzi handia hartzen du Stalinen politiketan eta Bigarren Bost Urteko Planaren bidez (1933-1937) politika ezberdinak jartzen dira martxan. 1935 Ean Alexei Stajanov meatzariaren irudia famatu egin zen, heroi bihurtzeraino, egun batean bi tona ikatz atera zituelako meatze batetik, produkzio arauak zehazten zuten kantitatea baina 14 aldiz gehiago. Momentu honetatik aurrera, produkzio kuoten gorakada eta errekorren bilaketa etengabeak izan ziren.

Stajanovista deiturikoek errendimendu indibidualaren arabera soldata jasotzen zuten, eta honek arrakalak sortu zituen langileen artean. Produkzio arauetan aldaketak eman ziren eta honek langileek baldintzak okertzea eragin zuen, *stajanovisten* aurkako ekintza zuzenak ere burutu zirelarik. Azken batean, taylorismoaren printzipioak sobietar sistemaren baitan aplikatzeko saiakerari erantzun zioten politika hauek, gero balioaren legea ez deusezteak ondorio zuzenak izan zituelarik. (Corriente & Montero, 2012).

Stajanovistei kirola praktikatzea planteatu zitzaion eta hainbat kirolari garrantzitsu fabriketara bidali zituzten, langileek lan produktibitatea kirol errendimendu gorenarekin identifika zezaten (Corriente & Montero, 2012). Estajanovismoak ez zuen soilik langileen artean produktibitatea igotzeko lehia ekarri, indibiduala zein taldekakoa, fabrika ezberdinen arteko lehia izatera ere pasa zen.

Eboluzioarekin jarraituz, politikan egindako fronte popularren planteamenduak, isla izan zuen kirolean ere, eta kirol fronte antifaxisten dinamikak martxan jarri ziren. Mundu mailako egoera politikoak eragin zuzena izan zuen honetan, Hitler boterera iritsi zen garaia izan baitzen, eta Sobietar Batasunak, Mundu Gerra baten aurreikuspena eginez, beste herrialde batzuekin aliantzak burutu behar zituela ondorioztatu zuen. Horrekin estuki lotuta, Frantzia eta Britania Handiarekin kontaktuak

egiten hasi ziren, kirola baliatuz horretarako, aliantza militar posible baten baitan lanean hasteko (Corriente & Montero, 2012). Hilabete gutxiren buruan, sozialdemokraziaren eta kirolaren aurkako tesiak alde batera utzi, eta batasun antifaxistaren eta demokraziaren balioen aldeko bloke anitzak artikulatzen hasi ziren.

Aldaketa honen bidez hainbat dinamika jarri ziren martxan, eta masak faxismoaren aurka antolatzeko helburua jarri zen mahai gainean. Langile talde “herrikoien”, mugimendu zabal bat osatu zen, sozialdemokraziaren asoziazioetatik hasi eta burgesia kontserbadorearenera iritsi zena.

Lan egiteko modu honen ispilu garrantzitsuena Bartzelonako Herri Olinpiadaren proiektua izan daiteke. 1936an Berlinen jokatu behar ziren olinpiadei boikot egin eta langile mugimenduaren adierazpen garrantzitsu bihurtu behar zuena. Gerra Zibilaren leherketak berau ezin ospatu izana eragin zuen, baina hainbat irakaspen historiko ekarri zituen dinamika izan zen. Olinpiada ofizialei boikot egitetik, benetako balore olimpikoen aldarrikapenera pasatu ziren, Gounoten (2005) aburuz:

“Berlingo Olinpiar Jokoen nazional-sozialismoaren ideologia mundu mailan zabaldu nahi dute, esklabutza, gerra eta balore arrazisten apologia eginez. Bartzelonako Herri Olinpiadak ordea, benetako espiritu olinpiarra babestu nahi du, arraza eta herrialde arteko berdintasuna onartu, eta bakea hezkuntza osasuntsu baten oinarri gisa ikusten duena”

Diskurtsoari dagokionez aldaketa oso garrantzitsu bat ematen dela ikus daiteke, eta taylorismoan aipaturiko logikaren isla argia dela. Neo-coubertanismoaren apologia egitera iristen dira momentu batean, komunismo eta olinpismoaren arteko lotura posible dela ondorioztatzeraino. Planteamendu interklasistak gailentzen hasi ziren, eta zenbait tokitan baldintza positiboak sortu izan bazituen ere, ikusi da, klaseen arteko paktu horrek ez duela proiektu iraultzaileak martxan jartzeko pausu estrategiko gisa eragin positiborik izan.

Urteetan zehar eman zein eztabaida izan zen kirol burgesean parte hartzearena, eta lehenago pausoa eman ez bazen, emaitzak onak izango zirenen bermerik ez zegoelako izan zen. Behin ikusita emaitzak onak izango ziren eta langile sozialestek kirolari burgesak irabazteko gai izango zirela, parte hartzen hasi ziren. Bigarren Mundu

Gerra tartean izan zenez, 1952ra arte, Helsinkiko Joku Olinpikoetararte itxaron behar izan zuten. Hortik aurrera, kirolean inbertsio ikaragarriak egin ziren, eta dopajeak pisu handia hartu zuen, kirolarien potentzialak mugarik ez zuela joko uste zen garai batean.

1.4. Irakaspenak eta ondorio praktikoak

Atal honetan aurretik egindako analisi guztiaren ondorio praktikoak ateratzen saiatuko gara, jarduera fisikoaren paradigma beharrean sakonduz. Praktika askatzaile bat helburu izanik, historiatic ikastea ezinbestekoa da akatsetatik irakaspen konkretuak ateratzeko.

Lehenik eta behin, burutuko dugun kritika testuinguratu egin behar dela aipatu beharra dugu. Urte asko pasa dira Sobietar Iraultza eman zenetik, eta asko dira esperientzia historiko hark eman zizkigun irakaspen positiboak, eta arlo askotan eredu izango da langile mugimendu iraultzailearentzat. Koiuntura eta momentu historikoan zailtasunak onartzeak ordean ez du esan nahi hainbat erabaki konkreturen gaineko kritika zorrotza garatu behar ez dugunik, akats berdinetan berriro ez erortzeko.

Kritikaren muina esentzian burgesiarenak diren tresnen erabileraren eztabaidan dago. Eztabaida hau, bizitzaren esfera ezberdin guztietan aplikatu daiteke, eta planteamendu praktikoak martxan jartzerako orduan zalantza ugari sortzen dira. Estatua hartzearen edota berau suntsitzearen inguruko eztabaida langile mugimendu iraultzailearen baitan eman den eztabaida ohiko bezain garrantzitsu baten adibide da, hau da, burgesiaren mesedetan sortu den tresna batekin zer egin. Lenin, Kautsky, Bernstein, Trotski, Bakunin... hauen arteko eztabaiden ondorioak gaurdaino iritsi dira, eta gaur egun ere mahai gainean dago eztabaida, beste batzuk direlarik noski hori teorizatu eta planteamendu praktikoak egiten dituztenak. Baina erroan dagoen eztabaida, aspaldikoa da.

Hau adibide bat besterik ez da, eta ez da lan honen helburua sobietar batasunaren gainbeheraren jatorria aztertzea, bai ordea, kirol esparruan eman diren aurrera zein atzera pausuak aztertzea. Horretarako beraz, taylorismoaren eta *estajanovismoaren* arteko lotura eta honen ondorio praktikoak aztertuko ditugu. Azkenik, Langile kirolaren gure ulkerera planteatzeaz gain.

Eztabaida handiak egon ziren, ekonomiaren eta hezkuntzaren antolaketari dagokionez, planteamendu ekonomiko konkretu bat martxan jartzeko hezkuntzak paper esanguratsua jokatzen baitzuen. Garai hartan Europan zein Estatu Batuetan Federiko Taylor ingeniariaren ekarpenei jarraiki, taylorismoa izeneko lan egiteko modua martxan jarri zen. Gainbalio erlatiboa, hots, soldataren eta irabaziaren arteko aldea du lan egiteko modu honek helburu. Zertan datza “sistema zientifiko” honek? Leninen (1974) aburuz langileari egunero bere lan indarra hiru aldiz gehiago lapurtzean datza sistema honek. Teknikaren garapen guzti hori langilearen aurka erabiltzen da, bera oraindik eta gehiago esplotatzeko metodo bat besterik ez da. Langilea zapaltzea da helburua, eta fabrikaren barruko distribuzio arrazional eta zentzuduna saihestea.

Hasieran beraz, taylorismoaren aurka egiten bada ere, Iván Alexandrovich Kairov-en planteamenduan ateratzen dira aurrera, eta oinarri hauek hezkuntzan, industrian eta kapa guztietan. Produktibitatea handitzea izango da helburua, ekonomia efizientiago egin, baina langileria gehiago zukutu.

Momentuan garrantzitsua izan bazen ere, eztabaida hauek denboran zehar luzatzen joan ziren, eta aldaketa ideologiko handia eman zen Sobietar Batasunean. Taylorismoa eta balioaren legearen kritikatik, balioaren teoria ezin dela abolitu esatera pasa ziren 60ko hamarkadan, gainbehera ideologikotik politikoa eratorri zelarik. Taylorismoaren filosofia honek ere kultura fisikoan eta kirolean eragin nabarmena izan zuen, lehenago aipatu dugun bezala *estajanovisten* mugimenduarekin. Logika berdina da, produktibitatea igotzea, kosta hala kosta, helburua gehiago produzitzea izanik. Kirola baliatu zen horretarako, eta heroien figura agertu zen.

Gure ustez, balioaren legearen funtsa duen planteamendu batek ezin du kultura fisikoaren oinarrian egon, berau erreproduzitzeko joera izango baitu beti, eta ez duelako bizi eredu bat erreproduzitzeko potentzialik izango. Langileon beharrianak ekoitzi eta banatzea izan behar du helburua, balioaren teoria guztia alboratuz.

Langile kirolari dagokionez, oso esperientzia interesgarria dela uste dugu, eta garaiko koiuntura politikoaren azterketa sakona beharko genuke mugimendu horren kritika zorrotz bat egiteko. Jarraian kirolak formazio sozial kapitalistan jokatzen duen papera aztertuko dugu, eta hor gure posizionamendua gehiago garatuko da, kirola zer den argi utzita, berau eta prozesu iraultzailearen arteko bateraezintasuna agerian uzten saiatuko garelarik.

2. BLOKEA: Kirola formazio sozial kapitalistan

2.1. Sarrera

Analisi historiko bat egin ostean gaur egun kirolak eta jarduera fisikoan formazio sozial kapitalistan zein paper jokatzen duen aztertzea ezinbestekoa dugu. Gaur egungo errealitatearen analisia egiteko marxismoa erabili dugu metodo zientifiko gisa, helburua mundua aldatzea baita, eta ez behaketa lan bat egitea. Garrantzitsua izango da beraz kirolaz, jarduera fisikoaz eta abar ari garenean zertaz ari garen ondo definitzea, eta horiek bizitzako beste esferetan zein paper jokatzen duten aztertzea. Ez da lan honen helburua analisi honetan sakontzea, baina oinarri batzuk jarri beharrean gaude, gero egingo dugun *Karrikan* proiektuaren abiapuntu izango direnak. Aurretik egindako txostenean (ikus. *Eranskinak* atala) gehiago sakondua dago gai hau.

2.2. Bereizketa terminologikoa

Kirola eta jarduera fisikoa sinonimotzat hartzen ditu gaur egun gizarteak, eta kirola osasunerako ona dela egunerokoan entzuten den zerbait da. Kirol terminoak konnotazio positiboak ditu, sozialki baloratua dago, eta eraginkorra eta ona denaren ustea guztiz zabaldua dago. Normalean kirola eta osasuna elkarlotuta doazen ideiak bezala ageri dira, gaztetasun edo dinamismo seinale gisa ere bai. Kirolaren ideia honen baitan jarduera fisiko guztiak barnebiltzen dira, gaizki noski, eta ideia horrekin apurtu behar dugu.

Termino hauen erabilera oker honen atzean ordea historia luzea dago eta hasieratik ondo bereiztea komeni da. Jarduera fisikoa energia gastua suposatzen duen gorputzeko mugimendu kontziente oro kontsidera dezakegu, egoera motor jakin

batean ematen dena. Kirola ordea, lehia egoera arautu, instituzionalizatu eta federatua da. Igerilekuan joan etorrian dabilen gaztea, jarduera fisikoa praktikatzen ari da, igeri egiten ari da; jarduera horrek produzitzen dion plazera soilik izanik helburu. Beste igerilari bat ordea jauziak kuantifikatzen, joan etorriak neurtzen eta bere azken txapelketako marka hobetzeko saiakeran ari da, hau kirola egiten ari da (Parlebas, 2014).

Funtsean, bi helburu guztiz ezberdin dituzte, eta batak zein besteak ondorio ezberdinak noski. Jarduera fisikoaren praktikaren barruan nahi adina akzio motor sar daitezke, barne logika ezberdinak izango dituztenak, eta beharren arabera planteatuko direnak.

Kirol terminoak bilakaera historiko bat izan du eta hamaika definizio ezberdin eman izan dira. Guk gaur egun kirola zer den aztertuko dugu, eta gaur egungo errealitatea aldatzeko, tresna horrek zein aukera eskaini eta zein muga jartzen dizkigun. Brohmek (1976) dio kirola lehiaketa praktiken sistema instituzionalizatu bat dela, alderdi fisikoak garrantzi handia duena; praktika aratu, erregulatu eta kodifikatuz osatua dago, eta hauen azken helburua, parte hartzaile onena izendatzea edo errekorra erregistratzea da. Kirola beraz, lehiaketa fisiko orokortuen sistema bat da, unibertsala eta hasiera batean edonori irekia, espazio (mundu mailan antolatu daiteke) eta denboran (generazio ezberdinen arteko konparaketak egitera iritsi gaitzke) zabaldua, eta bere helburua giza gorputzaren ekintzak konparatu eta neurtzea da, potentzial infinitua duen elementu gisa. Etengabeko superazioaren ideia hori balore olinpikoetan isladatzen da, *citius*, *altius*, *fortius*, eta hauek formazio sozial kapitalistaren oinarrizko kategorien islada dira, errendimendu edo gainbalio printzipioaren baitan subsumituak direnak.

Definizio honetatik kirolaren gako nagusiak atera daitezke, eta ikusten den bezala helburu nagusia, kuantifikazioa, marken arteko konparazioa eta errekorra da. Kirola bezalako fenomeno bat ezin dugu gizarteko elementu isolatu gisa ulertu eta zentzu horretan, kirolak jokatzen duen paperarekiko ikuspegi ezberdinak daude. Gure kirolaren kritikak noski, berau produzitzen duen sistema sozialaren kritika du oinarrian. Askok planteatzen dute kirola beti existitu izan dela, kirolaren balioak unibertsalak direla... Posible izango da kirolaren bukaerarik? Marxek (1977) dio kapitalaren

benetako muga kapitala bera dela. Baieztapen horretatik abiatuta Brohmek (1976) dio kirol lehiaketaren muga lehia bera dela, eta kirolaren bukaeraz hitz egiteko baldintzak ditugula.

Gaur egun oso zabaldua dagoen tesi bat, burgesiaren partetik kirola kontrolatu eta haren interesetan erabiltzen denarena da. Kirolaren ikuskera neutral eta positibista bat da hau, eta hauen ustez, kirola sistema kapitalistaren azpistema bat da, merkantilismoak zikindua dagoena. Kirol sistema osoa langile klasearen eskuetan utziz salbatua izan daitekeela uste da. Kirola hortaz, neutroa da eta klase sozial baten interesetan erabilia da gaur egun. Tesi hauen baitan bi korrante bereizi daitezke: Proiektu iraultzailearen baitan burgesiari kirolaren gaineko kontrola kentzearen aldekoak, eta kirolaren erreforma bat ematearen aldekoak, bide demokratikoen bidez (Brohm, 1976).

Guk ordea, ez dugu uste, kirola berau determinatzen duten harreman sozialetatik separatu daitekeenik. Estatua edo hezkuntza kapitalismoaren logikatik separatu daitezkeela planteatzea bezala litzateke (Brohm, 1976) Lan honetan beraz, produkzio modu kapitalistaren eta kirol sistemaren arteko lotura separaezin hori hartuko dugu abiapuntu gisa, eta berau gainditzeko ezinbesteko baldintza gisa.

Autoreen arabera ezberdinak dira kirolak dituen oinarriko ezaugarriak, Guttmanek esaterako tipo idealen metodoa erabiliz 7 ezaugarri nagusi atxikitzen dizkio gaur egungo kirola. Guk Brohm (1976) oinarri hartuta eta lehen botatako bere definiziotik abiatuta 4 ezaugarri nagusi ezartzen dizkiogu.

Lehenengoa, eta oinarrikoa, errendimendu printzipioa litzatekeela honen arabera giza gorputzaren errendimendu arrazionalaren antolakuntza litzateke kirola. Antolakuntza guzti horrek, produktibitatea igo eta errendimendua muturrera eramateko funtsa izango du. Aurrerago Rigauerrekin sakonago aztertuko da gizarteko balio kapitalisten eta kirolean hauek duten isla.

Bigarrena, hierarkizazio sistema da, oso errotua dagoen hierarkia fisiko bat hain zuzen ere. Txapeldunak, sistema oso mugiarazten duten ereduak dira. Piramide moduko egituraketa bat eta horri dagokion espezializazioa beharrezkoak dira ereduak funtziona dezan, produktibitatea konstante mantendu dadin. Hierarkia hori ez da soilik

kirolarien artekoa, kirolen artekoa ere bada. Jakin badakigu egun zein kirolean mugitzen den dirua eta zeintzuk dabilzan lehiaketak antolatzeko dirurik lortu ezinda. Hierarkia guzti honen zapalkuntza eta esplotazio harremanetan sakontzea eragiten du. Kirola, iheserako balbula bat bezalakoa da, zapalduta daudenei kirol promozioaren bidez sozialki hobeto kontsideratuak izango direla sinestarazten diena.

Hirugarrena, antolaketa burokratikoaren printzipioa litzateke. Max Weberren (2006) arabera, kirolak sistema burokratiko zurrin bat osatzen du. Eta azken printzipioa, publizitate eta gardentasun printzipioa da. Kirol lorpen esanguratsuak mundu mailan zabaltzeko hamaika mekanismo ditu, eta errekorren bilaketarako ezinbesteko elementua da. Mundu osoa zeharkatzen dute kirola askok edozein txokotako marka berriak hautsi dutela esan ahal izateko. Kirolak funtzio pedagogiko oso garrantzitsu bat betetzen duela ere esan daiteke. Gaur egun gainera, kirol espektakuluaren gorakadarekin paper geroz eta garrantzitsuagoa jokatzen du, publizitatean inbertitzen duten lehiaketek gora egiten dutelarik eta horretarako dirurik ez duten antolakuntzak gainbeherara kondenatuz.

2.3. Kapitalismoa eta kirola estatuaren ideologi aparatua gisa

Formazio sozial kapitalista bi klase sozial antagonikoetan antolaturiko gizarte antolaketa da, bitarteko produktiboen jabe den klase batez, burgesia, eta horien faltan bere lan indarra saltzera kondenatua dagoen beste batez, langileria, osatua. Indar produktiboen jabetza pribatu honek harreman sozialak guztiz determinatuko ditu, eta horregatik deitzen zaio kapitalismo, esplotazio harreman bat ematen delako, gainbalioa lortzea delarik azken helburua (Marx, 1859).

Klase sozialen eta jabetza pribatuaren agerpena inflexio puntu garrantzitsu bezala hartuta, klase borroka, hau da, burgesiaren eta langileriaren arteko borroka, historiaren motore izan dela kontsidera dezakegu. Horrela bada, langileriaren auto antolakuntzaz soilik izango da posible klase sozialen deuseztea eta pertsonaren askapena (Marx, 1859).

Historian zehar gorputz teknika ezberdinak, jarduera fisiko ezberdinak, egin izan dira, garaiko beharren arabera egokitzen joan direnak. Beraz, produkzio prozesuarekin eta

bizitza materialaren erreproduzio materialarekin estuki lotua egon da jarduera fisikoa historian zehar. Gizarte kapitalista merkantileko printzipioek (produkzio merkantila, elkartrukea, konfluentziak, lehia, arrazionaltasuna, truke balioa, areriotasuna...) kirola goitik behera determinatzen dute. Printzipio hauek elkarrekintza bat, osotasun bat garatzen dute, marka delarik azken batean faktore garrantzitsuena. Markak kirolean marka neurgarri bat suposatzen du, ekibalentzia printzipio bat alegia. Honek marka merkantzia gisa ulertzera eramaten gaitu, kirol produktu bat bezala, kirol esfortzu abstraktuaren ondorio. Soldatapeko lanaren ideiarekin batera, aisialdiaren esparruan *markak sortzen dituen lan indarra* sortzen da (Brohm,1976)

Markak lortzea helburu duen prozesu guzti honi Brohmek (1976) *kirol produkzio prozesua* deitzen dio. Termino honen erabilerarekin kirola abstrakzio maila teoriko altuenean aztertu nahi du eta formazio sozial kapitalistarekin duen harremanean sakontzeko aukera ematen dio. Brohmen (1976) aburuz, *kirol produkzio prozesuaren* helburua txapeldunak sortzea da, kalitatezkoak eta ahalik eta gehien, merkaturako erabilgarriak izango diren kirolariak sortzea alegia, gero mundu mailan lehiatuko direnak.

Aurretik aztertu dugu, garai ezberdinetan zein helbururekin garatzen joan den. Kapitalismoaren garapenarekin ordurarteko teknika horiek guztiak arrazionalizatzen doaz eta pixkanaka honek beharretara guztiz subsumitzen da. Kirolaren esentzian gorputza makina bat bezala interpretatzen da, kirol errendimendu maximoa bilatuko duena.

Antolaketa sozial zapaltzaile hau ordea ez litzateke mantenduko burgesiak martxan jartzen dituen aparatu eta mekanismoengatik izango ez balitz. Estatua da, antagonismo hau mantentzeaz arduratzen den tresna nagusia. Estatua, gizartearen produktu bat da, garapen fase konkretu baten ondorio. Bi klaseen arteko antagonismo ezin konziliagarrien ondorio da, eta indar honek, bi klaseen arteko talka hau malgutzen du, ordenaren mugen baitan mantenduz. Botere bat da, gizartetik jaiotzen dena, baina honen gainetik dagoena eta beragandik geroz eta gehiago aldentzen dena. Hori da estatua (Lenin, 1918).

Estatuak eginkizun errepresibo horiek burutzeko aparatu ezberdinak ditu, gobernuak, administrazioa, ejerzitoa, kartzelak ... eta horiekin batera estatu ideologi aparatuek ditugu. Aparatu horien artean sistema erlijioso osoa, hezkuntza, kultura, komunikabide burgesak... ditugu, eta horien artean, geroz eta garrantzi handiagoa hartzen ari duen bat, kirola (Althusser, 1988).

2.4. Kirolaren funtzio ideologikoak

Jean Mari Brohmek (1993) hainbat funtzio ideologiko egotzen dizkio kirolari: Lehengoa funtzio positibista litzateke, egungo ordenarekin atxikipena bilatzen duena eta neutroki ordezkatzeko duena. Klaseen, estatuaren eta botere guztien aurrean neutrala den ente gisa agertzen da. Zentzu horretan funtzio integratzaile bat betetzen du, sistemaren zilegiztatzea bilatuz.

Bigarrena, promozio sozialaren ideia litzateke. Aurreko funtzioarekin guztiz elkarlotuta doana. Klase antagonismoa ikusteaz egin eta lanaren bidez, elitera iritsiko garenaren ideia faltsua saltzen digute, enpresa munduan enprendedoreekin egiten den gisan. Ustezko bake egoera batean, baldintza berdintasunean lehiatzen diren kirolarien arteko konparaketa izango dira txapelketak.

Hirugarren funtzioa lan indarraren kualifikazioa litzake, eta hezkuntza eta beste hainbat aparaturekin batera, gizakia lan indar kualifikatu bihurtzeko bide emango du kirolak ere, soldatepeko lanaren baitan funtzio konkretu batzuk bete ditzan. Laugarren funtzioa despolitizazioarena litzake, eta baliteke gaur egun garrantzitsuena izatea, masak garrantzitsuak diren gaietatik urrundu eta sasi-aisialdi eredu bat inposatuz. Kirol ikuskizunen garaian bizi gara eta masak haietara begira egotea komeni da.

Bosgarren funtzioa errepresio sexualerako tresna garrantzitsua izatea da, pertsona eta bere gorputzaren arteko harremanak *sadomasokismoa* duelako ardatz, hau da, esfortzu mingarriaren bidezko plazerra. Honetaz gain, desira sexualen antidoto bezala kontsideratzen da. Seigarren funtzioa gazteria erreklutatuz eta militarizatuzeko tresna izatea da eta azkena, merkantzien baitan antolatutako ikuskizunaren apologia egitea, pertsonak merkantzia gisa eskainita.

Kirolaren analisi guzti hau egin ondoren argi geratzen da kirola esentzian zer den. Gure helburua ez da eztabaida amaitezin bat ematea estrategia eta taktikaren inguruan baina bai argipen kontzeptual batzuk egin eta horri dagozkion planteamendu praktikoak martxan jartzea, lan osoan zehar aipatu dugun bezala. Kirola tresna askatzaile gisa erabiltzearen mugak agerian geratu direlakoan gaude, eta guk beraz, apustua langile klaseari propioa izango zaion kultura fisiko baten eraikuntzan kokatzen dugu. Horretara dator *Karrikan*. Hala ere, kirol fenomenoak mugitzen duen jende kopurua kontuan izanda, esparru horren kontra lan ideologiko eta politikoa egin behar dela ere uste dugu. Horrelako masa espazio batek hamaika aukera eskaintzen dituelako gure proiektuaren sozializatorako eta aldarrikapenak egiteko.

3. BLOKEA: *Karrikan*

"Gure ustez komunismoa ez da gauzen egoera bat, oraindik zehazteke dagoena, ezta ideal bat ere, zeinera errealitatea egokitu egin beharko den. Gauzen egungo egoera deusezten duen benetako mugimenduari deritzogu guk komunismo. Mugimendu horretarako baldintzak gaur egun indarrean diren premisen ondorio dira" (Engels & Marx, 1979:37).

3.1. Proiektu estrategikoa eta enbrioi izaera

Karrikan, jarduera fisiko autogestionaturantz dinamika, ikasle mugimenduan sortutako dinamika bat da, eta bizitzaren ulerkera konkretu baten baitan jarduera fisikoa ulertu eta planteatzeko filosofia gisa ulertzen dugu. Filosofia honek, gaur egun, saio praktiko batzuetan du isla, lan honen bukaeran aztertuko ditugunak. Baina saio praktiko horietatik haratago doan ulerkera bat da, eta kapitalismoaren gaindipena eta elkertasunean oinarrituko den bizi eredu baten eraikuntzan kokatzen dugu proiektu estrategikoa. Aurretik ondorioztatu dugun bezala, gaurdanik eman behar dugu beste harremantze eredu batzuk sustatzeko pausua, beste bizi eredu bat martxan jartzekoa. Bide horretan hamaika erronka aurkituko ditugu, baita horiei erantzuteko erabili beharreko tresnak ere. Guk jarduera fisikoaren esparrutik erantzun nahi diogu, langile kontzientziaren garapenerako ardatz baten gisa.

Zentzu horretan, enbrioi izaera ematen diogu gure proiektuari. Beste bizi eredu baten oinarri teorikoak finkatzen ditugun bitartean, gaurdanik eragiteko erabili dezakegun tresna gisa ulertzen dugulako. Ez da eredu perfektu bat, iraultzaren eguna ematen denetik aurrera martxan jarriko duguna. Planteamendu eta oinarrizko filosofia baten gidalerro moduko bat da, bide horretan eman beharreko pausuak zuzenak izan daitezten. Bide batez, teoria eta praktika lotzeko modu bat ere bada. Planteamendu teorikoa praktikan jarri, ondorioak aztertu eta berriro teoria garatzeko metodologia planteatzen ari gara, ezin ditugulako teoria eta praktika banatu. Praxia da bidea, eta beraz, *Karrikan* da aldi oro eraldatuko dena.

3.2. Aisia vs lana kontraesanaren gaindipena

Lana eta aisialdiaren arteko kontraesanaren ebazpena, edo produkzio eta kontsumoaren artekoa, ezin da Huizingak planteatzen zuen moduan, dagozkien proportzio justuen banaketaren bidez eman. Aukera bakarra bien abolizioa da, hots, kontraesanaren gaindipena eta giza jarduera forma aske baten goreneko sarbidea (Corriente & Montero, 2012).

Aurreko puntuarekin estuki lotua doan kontraesana da aisialdiarena, eta gaur egungo errealitatea diskurtsora egokitzen jakin behar dugu. Gaur egun, gure proiektuak martxan jartzeko dugun denbora tarte bakarra, aisialdi horretan ematen dena litzake, langileak derrigortuak baikaude bizitzeko lan indarra saltzera.

Norberaren garapenerako denbora bezala ulertuz gero, gaur egun aisialdirik ez dagoela esan genezake, denbora librean sistema kapitalista mantentzen lan egiten baita etengabe, gainbalio ideologikoa sortuz (Silva, 1970).

Aisialdiko denbora horretan beraz, eragin beharko dugu, eta pixkanaka langileok kapitalarekiko dugun menpekotasun hori apurtzen joan.

3.3. Jarduera motorraren potentziala

Akzio motorra subjektu baten edo hainbaten jokabide motorren errealizazio prozesua da, egoera motor konkretu baten jarduten du(t)ena (Parlebas, 2014). Akzio motorrak pertsonaren garapenean duen potentziala oso handia da, eta praktikaren beraren bidez ikastea oso garrantzitsua dela uste dugu. Oraingo hezkuntzak ez bezala, gure beharrei erantzutea izango du xede gure formakuntzak, eta ahalduntze prozesu

horretan jarduera fisikoa oso eraginkorra da. Ekintza motorrean ez da teoria eta praktikaren arteko bereizketarik ematen, jokabideak berak inplizituki daramalako erabakia bere barnean.

Jarduera ezberdinen analisia egiterako orduan Parlebasek (2014) egindako simplex- a oso interesgarria eta erabilgarria dela iruditzen zaigu. Bertan jarduera fisiko guztiak 3 irizpide nagusien arteko elkarrekintzaren arabera jokoan barne logika aztertzen du. Hiru irizpideak ingurune fisikoari dagokion ziurgabetasuna, kideekin dagoen elkarrekintza, eta arerioekiko elkarrekintza dira, eta horien konbinazioetatik, jarduera fisiko eta kirolen arlo zabala 8 modalitate ezberdinetan bana daiteke. Ziurgabetasunaren erabilera oso garrantzitsua da, kirolean estandarizaziorako joera ematen dela ikusi dugu, gizarte kapitalistaren isla den heinean. Guk jarduera fisikoa espazio ziurgabeetan egiteko apustua egiten dugu. Bizitza uneoro erabakiak hartzean datzan prozesu bat bezala ulertzen badugu, jarduera fisikoaren bidez erabaki motor horiek hartuta gero bizitzako beste esparruetara transferigarria izango da.

Bestetik, elkarren arteko harremanak sendotu eta kolaboratzen ikasteko ere aukera onak eskaintzen ditu jarduera fisikoak (Velázquez, 2010).

3.4. Kontzientiaren garapena eta pertsona berriaren eraikuntza

Pertsona, historiaren aktore kontzientea da, eta bere askapena, hau da, komunismoa ekintza kontzientea da, eta ez bakarrik klase antagonismoen kontraesanen garapenaren ondorio mekaniko bat (Marx, 2007).

Pertsona erdigunean jartzeaz ari garenean, elkertasunean oinarrituko direnen harremanez hitz egitean, ekonomia eta bizitza antolatzeko beste modu integral batez ari gara. Martínezek (2010) Che Guevararen inguruko liburuan kapitalismotik komunismorako trantsizio faseari "Trantsizio sozialista" deitu zion, eta hor faktore objektiboak eta subjektiboak nola uztartu landu zuen. "Las ideas y batallas del Che" liburuan, bere pentsamendu filosofiko eta politikoaren hausnarketa sakona egiten da, eta bertan "Gizon berriaren eraikuntzaz" mintzo da.

Guk, pertsona berriaren eraikuntza planteatuko dugu, generoaren abolizioa eta sexu askapena helburu izanik ezin baitugu gizon berriaren eraikuntzaz hitz egin. Baina kontzientziaren garapenaren eta ekonomiaren antolaketa objektibo horren arteko dialektika oso modu interesgarrian planteatzen du Chek. Bere garaian, produkzio bitartekoen nazionalizazioa eman zen Kuban, baina horrekin batera kontzientziaren garapena ematen ez bazen, inoiz ezin izango zela komunismora iritsi planteatzen zuen, besteentzako lana egitearen kontzientzia izaten jarraituko baitzuten. Beraz, kontzientzia produkzioaren antolaketarekin batera aldatzen joan beharko da, eta hor jarduera fisikoak paper garrantzitsua duela uste dugu.

Estimulu materialak gutxitu eta erabat alboratzearen aldekoa zen Che, jendeak soldataren eta trukearen logika pixkanaka burutik ken zezan. Ondo egindako lanarekiko estimulu moralak planteatzen zituen, eta sariak ematekotan kolektiboak izango ziren. Etengabe hausnartu zuen, planteamendu ekonomiko konkretuek pertsonaren kontzientzian izango zuen eragina aztertzeko. Aldaketak, horretara bideratuak izango ziren, edo bestela ez zuten "Trantsizio sozialista" horretan ekarpenik egingo.

Eta hau guk nola planteatuko dugu? Batetik, barne logika konkretu bat duten praktiken bidez, izaera kolektiboa izango dutenak gehienbat. Bestetik, pixkanaka sortzen joango garen harremantze espazio askeen bidez, parekideak, parte hartzaileak, anitzak eta autogestionatuak izango direnak. Gaurdanik baldintza materialak aldatu eta geure forma politiko propioak antolatzearekin batera, elkar harremantze horretan pausuak emateko espazioa izango da *Karrikan*.

Pertsona berria beraz, bere buruaren jabe den pertsona litzateke, egoeraren analisi egokiak egiteko gai dena, besteengatik dena emateko prest dagoena, eta langileen askapenaren kontzientziaren beharra duena, praktika politiko batean islatuz.

Prozesu honek guztiak langile klasea benetan klase kontziente izateko prozesuan ekarpena egin beharko du, kontzientzia praktika politikoan islatuz eta klasea subjektu gisa artikulatuz (Lukács, 2009).

3.5. Osasunaren ulerker

"Ez hiltzen zenbat saiatzen garen eta bizitzen zein gutxi" ¹

Iturriotzen (2017) arabera, osasunaren kontzeptuak bilakaera historiko-kultural handia izan du, eta gaur egun ere oraindik ulerker asko dauden arren (etnia ezberdinetan, batez ere), kontzeptu honek estatikotik dinamikora jauzi egin duela esan daiteke.

Guk oreka bio, psiko eta sozial gisa ulertzen dugu, nahiz eta badakigun definizio batean zaila dela hain kontzeptu zabala ondo azaltzea. Jarduera fisikoaren beharraz ari garenean ordea, ondo justifikatu behar dugu honek pertsonaren ongizatean, kontzeptu hau nahiago dugu, egiten duen ekarpena zein den. Zati honetan jarduera fisikoak duen potentziala justifikatu eta osasunaren ulerkerari dagokionean zein aldaketa eman behar dugun ere planteatzen saiatuko gara.

Jarduera fisikoak eragin positiboa du pertsonengan, aspektu fisiko zein psikologikoei dagokienez. Jarduera fisikoa erregulariki praktikatzaren efektu positiboak errepertuz, aktibotasuna, konfiantza, memoria, oreka emozionala, ongizatea, funtzionamendu intelektuala, autoirudia, autokontrola... lortzen laguntzen du (Márquez, 1995).

Osasunaren antolaketari dagokionez gaur egun hiru esparrutan antolatzen dela esan daiteke. Sustapenean, prebentzioan eta tratamenduan. Orokorrean gure bizitzarekiko ulerkerak gauzak erabili eta botatzera eramaten gaitu: erosi, bota, berriro erosteko, kontsumismoaren etengabeko zurrumbiloan. Osasunaren arloan berdin egiten dugu, eta arazoren bat dagoenean, bi irtenbide daude, gorputzaren erreakzio naturalei ekiten utzi, edota tratamendu bat jaso. Osasunaren gaineko jakintza noski, ez dago gure esku, ez dakigu arazo bat dugunean nola jardun behar dugun, eta gure aiton amonek zituzten jakintza asko eta asko ere galdu egin ditugu. Gaur egun, gaixotzen bagara medikura edo farmaziara goaz tratamendu eske, eta hori osasun sistema publikoa badago, ez dagoenean ordaindu edo hiltzea besterik ez baita geratzen.

Gizartearen patologizazioarako joera etengabea eta interesatua da, eta honen aurrean gure ezintasuna oso agerikoa. *Karrikanen* bidez, osasunaren sustapen eta prebentzio

¹ Ekaitz Goikoetxeak 2003ko Gipuzkoako Bertso Txapelketan botatako bertsoa.

ildoak landu nahi ditugu, gaur egungo egoeran gutxien lantzen direnak direlako, eta paradigma aldaketa hor identifikatzen dugulako.

Bizitza eta pertsona erdigunean jartzeaz ari garenean honetaz ari gara, momentua bizitzen, eta gure osasuna eta ongizatea kontzienteki garatzen. Ludikotasunarekin eskutik lotuta joango den ulerkera izango da, hurrengo puntuan espezifikoki landuko duguna. Orain arte osasuna eta hari loturiko jarduera fisikoa lan indarraren erreprodukziara bideratua egon bada etengabe, hots, hurrengo egunean lanera bueltatzeko prestatzera, orain kolektiboaren eraikuntzara bideratua egongo da.

Hasteko, gure gorputzaren gaineko jakintza berreskuratzea oso garrantzitsua izango da, berau gabe ezin izango dugularik guru burua zaindu, eta kapitalaren menpe izaten jarraituko dugulako. Bestetik, jarduera fisikoa lehen lerroan jartzea ezinbestekoa izango da, bizi eredu osasuntsu baten ardatz gisa, eta pastilla zein beste tratamenduekiko alternatiba erreal gisa. Bizitzako beste alorretan bezala, kolektiboki antolatzen ikasi behar dugu gaurdanik, elkartasunean eta elkar zaintzan oinarrituta.

3.6. Genero auzia

Batetik, uste dugu genero zapalkuntzaren gainditzea harreman sozial kapitalistaren suntsipenarekin emango dela, hala ez dela emango; eta horrenbestean, emakume langileon askapena langile klasearen deuseztapenarekin lortuko dugula, ala ez dugula lortuko².

Baieztape hau abiapuntutzat hartuta eta gure proiektua marko teoriko horren baitan kokatuta bi galdera egin beharko genizkioke gure buruari: posible da genero zapalkuntzarik gabeko kirolrik? Eta jarduera fisiko eredu aske edo askatzailerik?

Genero zapalkuntza, lanaren banaketa sexualean oinarria duen eraikuntza soziala da, eta formazio sozial kapitalistaren baitan botere burgesaren mantenua du helburu, hots, burgesiak langile klaseariko burutzen duen dominazioan sakontzea (Kolitza, 2018).

² Ikus. *Eranskinak*.

Mekanismo errepresibo eta ideologiko ezberdinak erabiltzen ditu horretarako, eta kasu honetan kirolak paper garrantzitsua jokatzen du. Ez dugu uste kirolak zapalkuntza hau gainditzeko aukerarik eskaintzen duenik, genero binarismoa, sexismoa, eta gizon burgesaren boterearen betikotzea oinarrian ditu eta. Adibide argia da "askatasunean" genero segregazio bortitza ematen den espazio bakarra dela kirola (Komunak, aldagelak...) eta hauek naturaltasun osoz bizi ditugu, duela ez hainbeste eskoletan ematen zen bezalaxe. Askatasunean, generoz banatuak gauden beste espazio bakana espetxea baita, edo antzerako instituzio errepresiboak.

Karrikanen baitan sortzen dugun alternatibak ez ditu bat batean zapalkuntza eta dominazio sistema honetatik eratorzen diren balore guztiak kenduko, eta ulertu behar dugu, gu ere barru barruraino alienatuta gaudela. Beraz, eraikitzen dugun eredu oro partziala izango dela esan behar dugu, eta pixkanaka proiektu iraultzailea garatuz joan ahala osotasun bat gauzatu eta beste bizi eredu baten parte izango dela.

Hau esanda, espazio aske bat eraikitzea izango da gure helburua, gainean ditugun lauzak pixkanaka kendu eta beste modu batean harremantzen ikasteko. Espazio inklusibo bat izango da hortaz, genero bereizketarik egingo ez dena, eta aniztasuna izango duena oinarrian. Horretarako denen ezaugarriak kontuan hartuko dituen praktika bat sintetizatuko dugu.

Zaintzari berebiziko garrantzia emango diogu, guztiz indibidualista den gizarte batetik elkartasunean oinarrituta egongo den batera pasatzeko, eta hau guztia kontzientzia politikoaren eta proiektu praktikoaren gauzapenarekin batera egingo dugu.

3.7. Eta lehiarekin zer?

Kirolaren inguruko kritika zorrotza egin dugu lan osoan zehar, baina alternatiba errealak martxan jartzerako orduan diskurtsoarekin koherente izateak lanketa zuzena egitea eskatzen du. Lan taldean bertan eztabaida luzeak izan ditugu honen inguruan, eta oraindik hainbat korapilo askatzeko ditugula kontziente gara. Hala ere, *Karrikanen* baitan kirol gisa hartzen ditugun praktikak albo batera uztearen aldeko apustua egin dugu.

Lehiaketa edo norgehiagoka, bere testuinguruan ulertu beharreko praktikak ditugu, horrek praktikaren beraren esentzia baldintzatuko du eta. Lehia, besteak gainditzeko ahalegin bezala definitu daiteke, nor den bestea baino gehiago definitzeko prozedura gisa. Lehia, kirolaren funtsean dagoen marka eta errekorren bilaketarekin guztiz erlazionatua dagoen kontzeptu bezala hartzen dugu, balore kapitalisten erreproduzioa eta esplotazioa funtsean dituena. Gaur egun, lehia motibazio iturri da, eta jarduera fisikoaren sustapenerako motibazio iturriak bilatu behar direla badakigu. Baina logika hori bera ezin dugula erreproduzitu uste dugu. Beste motibazio iturri batzuk bilatu behar ditugu, aurrerago landuko dugun bezala autotelikotasunaren eta ludikotasunaren bidez.

Baina beste kontzeptu batek zalantzak sorrarazi dizkigu, dueluak hain zuzen. Duelua, interes kontrajarriak dituzten bi arerioten edo gehiagoren arteko enfrentamendua da, batek irabazten duena, besteak galtzen du. Interes kontrajarrien kalkulu aritmetikoak "0" emango luke, hau da, batek irabazten duena besteak galtzen duenarekiko alderantziz proportzionala litzateke (Parlebas, 2014).

Interes kontrajarriez ari garenean ez gara interes antagonikoetaz ari, baizik eta barne logikaz, eta funtsezkoa iruditzen zaigu dueluek eskaintzen duten ziurgabetasun sozialaren lanketa. Akzio motorren potentzialaren atalean azaldu bezala, besteak keinu motorra interpretatu, deskodifikatu eta horren arabera gure ekintza motorra burutzearen prozesua oso konplexua eta oso aberasgarria da. Baina delu batean irabazle eta galtzaile bat al dago?

Hemen beste eztabaida sakon bat izan dugu, eta markagailuaren eta memoriaren afera sartzen da tartean. Esku pilotaren adibidea jarriko dugu. Esku pilota joko bat da, bere barne logikaren arabera bi pilotari aritzen direlarik pilota paretaren kontra kolpatzen, arerioari tantoa egin nahiean. Prozesu horretan, prozesu kognitibo, motor eta emozional mordoa jartzen dira martxan, eta ziurgabetasun soziala dago, hots, bestearekiko elkarrekintza, eta bere jokabidearen arabera jardun beharra. Joko bezala, oso joko polita eta osoa dela esan dezakegu. Arazoaren gakoa gure ustez, joko izatetik kirol izatera pasatzean dago. Joko bezala potentzial ikaragarria du, baina guk ez dugu nahi elkarren artean lehiatuko den gizarterik, hortaz ez dugu kirol hori praktikatu behar. Bi lagun frontoira joan eta "txokotara" aritzen, pilota jokoan ariko dira,

eta hori oso positibotzat hartzen dugu, jarduera fisikoa praktikatzen baita irabazteko asmorik gabe, jokoaren beraren plazeraren bila. Praktikaren erabilera sozialak funtsa finkatuko du. Joko eta jolas izaera da beraz berreskuratu behar duguna, errendimendutik at, errekorretik at.

Markagailua beraz, kendu egingo genuke gure jarduera guztietatik, eta orokorrean memoriarik gabeko jarduerak sustatuko ditugu, irabazle edo galtzailerik ez dutelako. Dena den, ez dugu eztabaida zentzugabea izan daitekeen puntu batera eraman nahi. Oso ohikoa da, gazte zein mugimendu askotan, gazteria elkartu eta praktika osasuntsuak sustatzera begira, kirol ezberdinen lehiaketak egitea. Guk berriz, proposamen zehatz bat burutu dugu, *Karrikanena*, martxan jarri daitekeen tresna erreal gisa.

Baina jakin badakigu errealitatea aldatzeko momentuko baldintzak aztertzea ere oso garrantzitsua dela eta askotan koiunturak praktika batzuen edo besteen artean aukeratzera eramaten gaituela. Positibotzat baloratzen ditugu, hainbat herritan sortu diren futbol liga antifaxistak, saskibalo lehiaketa mistoak... taktikoki, hainbat helburu lortzeko balio izan dezaketelako. Beti ere argi edukita noski, azken helburua zein izan behar duen, eta kontziente izanda, horrelako praktikek zein balore barnebiltzen dituzten.

3.8. Autogestioa

Autogestioa, autokudeaketa edo burukudeatzea^[oh 1] (grekerazko "*auto*", norberak berea, eta gestio, kudeaketa, hitzetatik) edonolako jardueran jardule edo ekintzaileek beraien kudeaketa bere gain hartzeko prozesuari deritzo, autonomia eta askatasunean oinarrituta. Autogestioaren ideiak beraz, eragiten dioten erabakien gainean erabakitzeke boterea inplikatzeko du bere baitan.

Prozesu bat da, norbanako edo talde baten beharrak identifikatu eta hauei autonomoki erantzuna emateko gaitasunak garatzen diren. Definizio hauek bizi eredu baten antolaketan oso oinarritzkoak direla ematen duten arren, merkantzien munduan elkartasunean oinarrituriko harremanak geroz eta gutxiago dira, eta ia ez da autogestioan oinarrituriko forma politikorik geratzen. Hainbat herritan batzarrak

mantentzen dira, baina ia eskumenik gabe, eta mantentzen diren bakarrak herrietako auzolanak dira (Sastre, 2013).

Jarduera fisikoak aspektu honetan potentzial garrantzitsua duela uste dugu, eta *Karrikan* dinamikaren barruan ardatz garrantzitsu bat dela uste dugu. Helburua ez da hausnarketa teorikoak eman dituen talde batek, ikasle zein herri mugimenduari saio praktikoak ematea. Horrela izango balitz, bezero saltzaile dikotomia batean eroriko ginatekeela uste dugu eta tresnak daukan potentzialetik oso urrun geratu. Jarduera fisikoa denen nahi eta behar bat da, edo behintzat izan beharko litzateke, bizitza osasuntsu baten ulerkeratik. Behar hori asetzeko beraz, taldetxo bat elkartu eta modu autonomo eta autogestionatuan aritzea da proposamena.

Lorentek (2008) dioen moduan,

“autokudeaketa akordio batean oinarritutako kudeaketa da, non parte hartu dutenen ikuskerak eta sakoneko partekatutako kide guztien balioak benetan kontuan izango diren. Honek talde izaera eta konpromezu handia sortarazten ditu. Kanpoko eragile baten kontrolik behar ez duen gobernatzeko modua izango da, hots, barne erregulazioan oinarritua.”

Hasierako faseetan, eskola kolektiboko kideen papera funtsezkoa izango da, hainbat hausnarketa lehenago emanda dituztelako eta saio praktikoak planteatzerako orduan esperientzia gehiago dutelako. Baina taldea egonkortu eta parte hartzaileek proiektuaren gaineko kontzientzia hartzea oso garrantzitsua izango da, horretarako aurretik bitartekoak jarri. Froga ezberdinak egin dira, saioen hasieran jendeari proposamenak eskatuz, asanblada formatuan... baina aurretiko lanketarik gabe jendeak proposamenak egitea oso zaila dela ikusi da, eta egin direnean perspektiba handirik gabeak izan dira. Honela bada, datorren urtera begirako planteamenduetan saioen aurreko fase bat planteatzen da, taldean helburuak komunean jarri, eta bide orri bat markatzeko. Hortik aurrera, ardura banaketak egongo dira, baina txandatzen joango dira, eta esleitutako rol guztiak asanbladak berak erabakiko ditu.

Autogestioak, apustu politikoa eta harremanak ulertzeko oinarritzko modua izateaz gain, onura garrantzitsuak ematen dituela ikusi da. Parte hartzaile guztiekiko enpatia handitzeko gakoa da, denak proiektuaren parte sentitzeko eta elkar laguntzeko gaitasunak garatzeko. Autodidakta izatearen beharra plazaratzen du, eta

autoikaskuntzaren filosofia barnebiltzen du (García, 2009). Hau da, guk geuk, komunitatean geure beharrei erantzuteko gaitasunak garatzea, inoren menpeko izan gabe. Barne motibazioa igotzen ere laguntzen duela ere frogatu da eta garrantzitsuena, izaera kolektiboaren oinarriak finkatzen lagunduko du, kolektiboa norbanakoaren behar inediatoen gainetik jarritz.

Dinamizatzaillearen paperari dagokionez, puntu bereizi bat merezi duela uste dugu. Ez dugu dinamizatzaille autoritarioaren figurarik planteatzen inondik inora, antolaketa behar horiek asanbladak kudeatuko baititu, ardura banaketa arduratsu baten bidez. Proiektuaren bilakaera zuzena dela bermatzeko ordea, zaindu beharreko hainbat puntu daudela uste dugu, botere harremanen zainketa, diziplina bermatu, barne gatazka txikietan fijaszea edota tarteka begirada orokor bat botatzea kasu. Asanbladak berak kudeatu beharreko beste ardura bat gehiago izan daiteke, baina oso eginkizun garrantzitsua dela uste dugu, askotan dinamikaren zurrunbiloak egunerokoa soilik ikustea ahalbidetzen duelako, eta norabidea galdu eta inertiak galtzeko aukera dagoelako.

Idea hauek laburbiltzeko sobietar iraultzan pedagogiaren eta politikaren alorrean oso garrantzitsua izan zen emakume baten aipuak erabil ditzakegu, Nadezhna Krupskayarenak hain zuzen.

“Eskolaren helburua ez da umeei jakintza erakustea, eskolaren egitekoa ikasten irakastea da, euren kabuz ikasi dezaten” “Beti termino zaharretan pentsatzen dugu, gau eta egun herriagatik buru belarri lan egitearekin aski dela. Baina ez du horrela izan behar. Gure eginkizuna herria laguntzea da, etorkizuna bere eskuetan har dezan” (Fitzpatrick, 1977).

3.9. Ludikotasuna

Azken tokia egokitu zaio puntu honi, baina ez garrantzi mailagatik inondik inora, lana ordenatzeko modu bati erantzuten baitio. Ludikotasuna proiektuaren erdigunean jarri behar dugula uste dugu, ergomotrizitatearen kontzeptuaren kontrako eredu gisa, eta helburua argia da: Jokoaren plazera eta ekintza entretenigarri baten bilaketa (Parlebas, 2014).


Plazer iturri hori ordea pertsonaren garapenerako beharrezko baldintza bezala ulertzen dugu. Gure bizitzaren jabe egitearen baitan kokatzen dugu, besteentzako lan egin behar izatetik askatu eta egiten dugun ekintza oro bizi proiektu moduan eginez. Pertsonaren garapen integralari begira geure plazer iturriak eta garapena ondo uztartzearen beharra argi utzi nahi dugu, baita zein besteak garrantzi handia dutela nabarmenduz.

Gaur egun aisialdiak, lan indarraren esplotazioak eragiten duen estresa eta antsietatea kudeatzeko iheserako espazioaren funtzioa betetzen du, eta guk hortik salto egin eta aurretik aipatu bezala aisia eta lana kontraesana gainditu nahi dugu. Bizitzaren beraren kontzeptzio ludikoa marko horren baitan aldarrikatzen dugu beraz.

Honekin lotuta autotelikotasunaren kontzeptua daukagu. Egiten dugun ekintza bera denean helburu, eta ez kanpo helburu bat, autotelikotasunaz ari gara hizketan. Gaur egun, jarduera fisikoa praktikatzeko motibazioa kanpotik etortzen da, motibazio exotelikoa dela esan daiteke. Jarduera fisikoa burutzeko motibazioak barrutik etorri behar badu, ludikotasunak ezinbesteko papera jokatu beharko du (Iturriotz, 2017).

Praktikak berak plazer iturburu izan behar du behintzat, eta momentuan bertan plazerra eman beharko lukeela uste dugu, ez dugu praktika hori egingo epe luze batera helburu bat lortzeko, bidean plazerrik lortzen ez badugu.

Autotelikotasun hau pertsonala da eta faktore ezberdinek eragina dute, baina erronka maila eta trebetasuna dira garrantzitsuenak Iturriotzek (2017). dioen moduan Bi faktore horien uztartzetik plazer maila ezberdinak lor daitezke.



(Iturriotz, 2017)

| JARDUERA MOTORRETAN EMAN DAITEZKEEN EGOERAK | | |
|---|---|---------------------------|
| EGOERAK | ERRONKA MAILA ETA TREBETASUNAK | ONDORIOA |
| 1. egoera | Erronka maila altua da, eta eskatzen duen trebetasuna handiegia | <i>Antsietatea</i> |
| 2. egoera | Erronka maila baxua da, baita trebetasun maila ere | <i>Gogo falta</i> |
| 3. egoera | Erronka maila baxua da, trebetasun maila, aldiz, altua | <i>Asperdura</i> |
| 4. egoera | Erronka maila altua da, baita trebetasun maila ere | <i>Egoera autotelikoa</i> |

(Iturriotz, 2017)

Faktore hauek konbinazioak hamaika izan daitezke, eta bakoitzaren oreka puntua bilatzea izango da gakoa, praktika kolektiboen bidez. Natur jarduerak, eta ziurgabetasun sozialaren lanketak eta garrantzi handia hartuko du, hor trebetasunak eta erronkak asko aldatzen direlako, espazio ziur edo ziurgabe batetik bestera. Gure eginkizuna izango da *Karrikanen* parte garenon ezaugarrietara behar bezala egokitzea egoera autoteliko hori bilatzeko.

4. BLOKEA:

4.1. Filosofiaren isla praktikoa gaur egun

Hausnarketa eta planteamendu teoriko guzti honek isla praktikoa izan du 2017/2018 ikasturtean zehar. Osotara sei saio praktikoa izan dira burutu ditugunak, Jardunaldi zein Herri Unibertsitateetan eta baita beste data normal batzuetan ere. Orain arte gu izan gara, talde kritiko bezala, saioak diseinatu, deialdi bat egin eta elkartzen zen jendearekin saio burutzeaz arduratzen ginenak. Lehenbiziko pausu bezala oso positiboki baloratzen dugu baina irakaspenak ere asko izan dira. Aurrera begira begirako erronketan horietako batzuk aipatuko ditugu. Jarraian planteatutako dudak saio ereduak, egindako saioen isla izan nahi du. Egin diren dinamiken azalpena eta *Karrikan* proiektuari ezarri dizkiogun printzipioen eta egindako praktiken arteko lotura aztertzea izango da helburua.

Ordu terdi eta bi ordu arteko saioak burutu ditugu, eta 20 pertsona inguru elkartu gara guztietan. Saioak hiru bloke izan ditu. Lehenengoan, aurkezpena, ezagutza jolasak eta girotzea. Bigarreanean, zati nagusia, eduki praktikoen lanketa. Eta azken zatian solasaldia eta zalantzen argipena. Azken saioan autogestioaren planteamendua hasieratik martxan jartzen saiatu ginen baina aurre lanketarik gabe oso zaila zela ikusi zen eta aurretik prestaturiko saioa eraman zen aurrera, denen artean hala adostuta.

SAIO PROPOSAMENA:

- Lehenengo atala:

Lehenengo atalean esan bezala aurkezpena, ezagutza jolasak eta girotzea egin ditugu. Hemen dinamika horren bi adibide. Agurraren jolasa, eta dantza.

Agurraren jolasean, parte hartzaileak eremuan zehar banatuta egongo dira mugitzen, fondoan musika dutelarik eta dinamizatzailerak zenbaki bat eta gorputzeko atal bat esango ditu. (Adibidez, hirunaka ipurdia, sudurra eta belarria). Parte hartzaileak esandako zenbakiaren arabera taldekatuko dira eta agur bat asmatu beharko dute, gero denen aurrean egin eta denek egiteko. Jolas hau soziomotorra da, memoria

gabea, kolaboraziozkoa eta oso interesgarria iruditzen zaigu hasieran harremanak egin eta lehenbiziko kontaktua egiteko eta baita ere bide batez sormena lantzeko.

Dantzari dagokionez musika jartzea planteatzen da, eta kideei libreki nahi duten erritmoan, banaka edo taldeka dantzatzeko esaten zaie. Honetan ere sormena eta lehen kontaktua egiteko baldintzak sortzen dira.

- Bigarren atala:

Bigarren atal honetan, eduki gehienak sartzen dira, eta saioaren arabera helburuak ezberdinak izango dira noski. Orain arteko saioetan helburu orokorrak markatu baino ariketa konkretuak planteatu ditugu, eta ondo pasatzea eta elkarren arteko harremanak sendotzea izan da helburua, jarduera fisikoa praktikatzearen onurak barneratzeaz gain noski. Hemen planteaturiko jolas eta jardueretako 3 adibide.

"Nor zara?" jolasa:

Parte hartzaileak eremuan zehar banatuta egongo dira mugitzen begiak estalita eta elkartzen den jendea nor den asmatzen saiatu beharko dira, horretarako pertsona hauek ukitu beharko dituztelarik. kontaktu fisikoa bilatzeko ariketa interesgarria da, eta zentzumen garrantzitsu baten galera zer den pixkanaka jabetzen joateko aukera ere. Begiak estalita edukita beste zentzumenak asko garatzen dira, eta kontzentrazioa eta erreflexuak lantzen dira.



Iturria: Haraba!

"Kanbio" jolasa:

Harrapaketa jolasa da , harrapatzaile bat eta iheslari batekin. Beste guztiak harrapaketa emateko bideak mugatuko dituzte. Paretak osatuko dituzten kideak zutik egongo dira lauki bat osatuz, haien artean besoak luzaturik edukitzeko adina distantzia

izango dutelarik. Adibidez 16 kide badira pareta osatzen dutenak 4x4ko lauki bat osatuko dute, denak alde batera begira egongo direlarik besoak zabaldua.

Harrapatzaileak "kanbio" esatean paretako kide guztiek eskuinerantz emango dute 90 graduko bira, horrela korri egiteko kaleak aldatuz. Aldaera ezberdinak planteatu daitezke, iheslaria izatea kanbio esango duena esaterako, edo kanbioa ez 90 gradukoa izatea, diagonalean jartzeko aukera izanik. Ohiko harrapaketa jolas batek baina aldaera gehiago ditu, eta denen parte hartzea konstantea da.



Iturria: Haraba!

"Pareta ukitzearen erronka":

Parte hartzaileak pareta batean ilaran jarriko dira eta helburua beste aldeko paretara iristea izango da. Kideen artean rol ezberdinak jarriko dira, eta rol horietako bakoitzak desplazamendua nolakoa izango den zehaztuko du. Batzuk oinez joan beharko dira, beste batzuk hanka batean... Batzuek ordea ezin izango dute desplazatu besteen laguntzarik gabe. Besterik gabe, ia! esatean irteera emango da. Helburua denak iristeko nola antolatzen den ikustea izango da, ea zenbatek laguntzen duten elkar eta zenbatek ihes egiten duten albokoa kontuan izan gabe. Ariketa oso sinplea da, baina gero egingo den hausnarketarako bide asko irekitzen ditu eta bakoitzaren inpultsoen gaineko kontrola nolakoa den ikusteko ere.

- Hirugarren atala:

Azken zati honetan eztabaidak eta zalantzen argipena egiten ahaleginduko gara. Jarduera motorraren bidez irakaspén asko atera daitezkeela uste badugu ere, gero horiek denak kolektiboki elkarbanatzeak ideietan sakontzen eta aurrera pausoak ematen laguntzen duela uste dugu. Orokorrean saioaren helburuak bete diren eta

jendeak nola pasa duen da aztertu izan duguna, ondo pasatu badugu saioaren balorazio positiboa eginez, helburu garrantzi bat hori baita. Orain arte asanblada formatuan egin dugu eta saioa dinamizatu duten kideek dinamizatu dute eztabaida hau ere.

Hemen planteatu ditugunak burutu ditugunen artean hiru baino ez dira, baina orokorrean filosofiaren ezaugarriak nola barnebiltzen diren ikus daiteke. Ariketa bakoitzak ezin ditu oinarri teorikoan planteatu ditugun azpiatal guztiak bete, baina guztiek logika berdinari erantzuten diote. Elkarlana, harremanak sendotzea, ludikotasuna... dira gakoak. Espazio aske bat sortzea da helburua, osasuntsua, drogen menpekotasunetik aparte egongo dena, inklusiboa... eta hortik aurrera, gorputzak eskatzen duenari erantzutea.

4.2. Aurrera begirako erronkak

Martxan jarri berria den proiektu batean erronkak eta hobetzeko aspektuak asko direla jakin badakigu. Gure lanketa teorikoak oraindik hutsune asko dauzkala jakitun gara, eta horietatik abiatuko den planteamendu praktikoro gabezi horiek islatuko dituela ere badakigu. Baina era berean, praktikaren bidez teoria osatzen joango garela badakigu, eta bide horretan jarraitzeko intentzioa dugu.

Autogestioari dagokionez datorren urtera begira *Karrikaneko* taldeari autonomia handiagoa ematearen aldeko apustua egingo dugu. Praktikaren bidez argi geratu da behar bezala funtzionatzeko taldeak egonkorra izan behar duela eta maiztasun finko batekin egin behar duela lan. Hurrengo urtean hortaz, nukleo egonkor bat osatzea izango da helburua, eta praktika autogestionario horretan sakontzea, dinamizazioekin apurtuz eta ideia horretan sakonduz.

Aurrekoarekin guztiz lotuta, joko-jolasen gehiegizko erabileraz ere kontziente gara. Hauek potentziala zalantzan jarri gabe, hauen mugak ere kontuan izan behar ditugu, eta hauetatik aparte jarduera fisikoen eremu zabalean dauden beste praktika eta barne logiken inguruan ikertu. Natur jardueren inguruan hausnartu dugu, baina oraindik ez gara gai izan gure planteamendu praktikoa hauek martxan jartzeko.

Azkeneko erronka eta agian garrantzitsuena proiektuaren beraren sozialazazioa dela uste dugu, azken batean jende berririk gabe ezin izango baitugu proiektuarekin aurrera jarraitu eta bere helburuak bete. Datorren urtera begira, bi helburu lehenetsi beharko ditugu alor honi dagokionez. Batetik, jende berria proiektura batzea. Bestetik, ildo teorikoa sozializatzen jarraitzen, bai ikasle mugimenduan eta baita herri mugimenduko beste espazioetan ere.

4.3. Ondorioak

Lan handia dugu aurretik, eta puntu asko findu beharrean gaude gure planteamenduak aurrera egitea nahi badugu. Baina lan honen helburua taldeari aurrera jarraitzeko tresnak ematea da, landu beharreko korapiloak identifikatu eta horiei eman beharreko perspektiba estrategikoa azaltzen saiatuz. Lan oso zabala da, eta ezin izan dut gai guztietan nahi adina sakondu, baina ezin aipatu gabe ere utzi. Argi geratzen da beraz, hurrengo baterako, *Karrikanen* printzipio nagusiak diren horietan sakondu beharra dagoela, eta pare bat hartu eta horietan sakontzen badagoela lana. Autogestioaren, ludikotasunaren eta generoaren inguruan esaterako bibliografia asko eta oso ona dago, eta horietan sakontzea dagokigu, bestela terminologia abstraktuegian galtzeko joera hartzea oso erreza baita.

Ereriz ikasten bada oinez, has gaitezen bidea egiten!

ERANSKINAK

Borroka garaia da! 2018ko maiatzaren 15ean ikusia,

<https://borrokagaraia.wordpress.com/2016/11/23/jarduera-fisiko-eta-kirolen-hausnarketa/>

Borroka garaia da! 2018ko maiatzaren 15ean ikusia,

<https://borrokagaraia.wordpress.com/2018/03/07/komunismoa-ipar-emakume-langileok-borrokan/>

BIBLIOGRAFIA:

- Althusser, L. (1988). *Ideología y aparatos ideológicos del estado*. Buenos Aires: Nueva Visión.
- Brohm, J. & Barbero, J. (1993) *Materiales de sociología del deporte*. Madrid, España: Endymion.
- Brohm, J. (1976) *Sociología política del deporte*. Paris, Francia: Jean Pierre Delargue.
- Corriente, F. & Montero, J. (2012). *Citius, Altius, Fortius, El Libro Negro Del Deporte*. Errioxa, España: Pepitas de Calabaza.
- Elias. N. (2011) *El proceso de civilización*. Madrid, España: Fondo de cultura económica de España.
- Engels, F. (1845/1979) *La situación de la clase trabajadora en Inglaterra*. Oviedo, España: Júcar.
- Foucault, M. (2010). *El cuerpo utópico*. Madrid, España: Traficantes de Sueños.
- Fitzpatrick, S. (1977) *Lunacharski y la organización soviética de la educación y las artes (1917/1921)*. Madrid, España: Siglo XXI.
- Foucault, M. (2012). *Vigilar y castigar*. Madrid, España: Biblioteca Nueva.
- García Olivo, P. (2009) *El educador mercenario*. Madrid, España: Brulot.
- Gounot, A. (2005) *El proyecto de la olimpiada popular de Barcelona (1936) Entre el comunismo internacional y el republicanismo regional*. CCD 3.zenbakia, Murtzia.
- Gounot, A. (2007) *De los ideales de salud a la ambición por los récords. Características y evolución de la ideología deportiva de la Unión Soviética en el periodo de entreguerras*. Estrasburgo.

- Iturriotz, M. (2017) *Osasunera bideraturiko jarduera fisikoa Euskal Herrian: egoera eta erronkak*. Gasteiz, Euskal Herria.
- Kolitza (2018) *Feminismo proletario y comunismo revolucionario*. Argitaratu gabeko artikulua.
- Lenin, V. (1974) *Obras completas*. Madrid, Espainia: Akal.
- Lenin, V., (1918/1987). *Estatua eta iraultza*. Madrid, Espainia: Federiko Engels Fundazioa.
- Locke, J. (1693/2012) *Algunos pensamientos sobre la educación*. Madrid, España: Akal.
- Lorente, E. (2009) *Estimular la responsabilidad y la iniciativa: autogestión en educación física*. Argitaratu gabea.
- Lukacs, G., (1923/2009) *Historia y conciencia de clase*, Buenos Aires, Argentina: R y R.
- Márquez, S. (1995). *Beneficios psicológicos de la actividad física*. Revista de psicología general y aplicada. *Revista de la Federación Española de Asociaciones de Psicología*, 48(1), 185-206.
- Martínez, F. (2010). *Ideas y batallas del Che*. La Habana, Cuba: Ruth
- Marx, K. & Engels, F. (1845/1959) *La ideología alemana*: Montevideo, Uruguai: Pueblos Unidos.
- Marx, K. (1859/1981) *Contribución a la crítica de la economía política*. Mexico: Siglo XXI.
- Marx, K. (1867/1977) *El capital. Crítica de la economía política*. Madrid, España: Akal.
- Marx, K. (2007) *Manuscritos económico filosóficos de 1844*. Buenos Aires, Argentina: Colohue.

- Marx, K.& Engels, F. (1848/1972) *Manifiesto comunista*. Madrid, España: La emancipación.
- Parlebas, P. (2014) *Juego, deporte y sociedades. Lexiko de praxiologia motriz*. Badalona, Països Catalans: Paidotribo. .
- Sastre, P. (2013) *Batzarra gure gobernu*. Donostia, Euskal Herria: Elkar.
- Silva, L. (1970) *La plusvalía ideológica*. Caracas, Venezuela: Fondo editorial de Humanidades.
- Velázquez, C. (2010), *Aprendizaje cooperativo en educación física*, Bartzelona, Països Catalans: INDE.
- Weber, M. (2006) *Sociología y educación: textos e intervenciones de los sociólogos clásicos*. Madril, Espainia: Morata edizioak.